



ETXEBIZITZAKO
BEHATOKIA
OBSERVATORIO
VASCO DE LA
VIVIENDA

Euskadin etxebizitza eskuratzeari buruzko txostena, genero-ikuspegitik 2020



Aurkibidea

1.	Emakumea Euskadin 2020an: adierazle sozioekonomiko nagusiak	4
2.	Lehen etxebizitza eskuratzeko premia euskal emakumeen artean	9
3.	Etxebizitza babestua	11
3.1.	Etxebizitza babestuaren eskaria euskal emakumeen artean	11
3.2.	Etxebizitza babesturako sarbidea euskal emakumeen artean	14
4.	Etxebizitzarako eskubide subjektiboa eta etxebizitza ordaintzeko prestazioen sistema	16
4.1.	Etxebizitzarako eskubide subjektiboa euskal emakumeen artean	16
4.2.	Etxebizitzarako prestazio osagarria euskal emakumeen artean	18
4.3.	Gaztelagun programaren estaldura-mailak euskal enpresen artean	19
5.	Ondorioak	20

Taulen aurkibidea

1.taula.	Etxebizitzarako eskubide subjektiboaren emakume onuradunak, 2020ko abenduan	16
----------	---	----

Grafikoen aurkibidea

1. grafikoa.	Biztanle-kopuruaren bilakaera, sexuaren arabera. Euskadi, 2000-2020	4
2.grafikoa.	Jaiotze-tasaren bilakaera 1.000 biztanleko. Euskadi, 1974-2019. Estatuko eta Europako datuak. 2019	5
3.grafikoa.	Bizi-itxaropenaren bilakaera (urteak) jaiotzean, sexuaren arabera. Euskadi, 2005-2019	5
4.grafikoa.	Emakumeak adin-tartean arabera, 2019 (pisu erlatiboa).....	6
5.grafikoa.	Euskadiko biztanleria aktiboaren langabezia-tasaren bilakaera, sexuaren arabera. 2001-2020	6
6.grafikoa.	ABEEE-en inpaktua, sexuaren arabera, 2020ko apirilean	7
7.grafikoa.	Euskadiko biztanleria aktiboaren jarduera-tasaren bilakaera, sexuaren arabera. 2001-2020	7
8.grafikoa.	Gizonen eta emakumeen batez besteko soldata Euskadin, sektorearen arabera 2008-2018.....	8
9.grafikoa.	Lehen etxebizitza eskuratzeko premia duten 18 eta 44 urte bitarteko emakumeen eta gizonen bilakaera konparatua. 2009-2019	9
10.grafikoa.	Lehen etxebizitza eskuratzeko premia duten emakumeen eta gizonen kopuruaren aldakuntza-tasak. 2017-2019.....	9
11.grafikoa.	18 eta 44 urte bitarteko pertsonen lehen etxebizitza eskuratzeko eskaria, diru-sarreraren eta sexuaren arabera. 2019. Guztizko eskariarekiko ehunekoa, sexu bakoitzean	10
12.grafikoa.	Lehen etxebizitza eskuratzeko premia planteatzen duten inolako diru-sarrerarik gabeko 18 eta 44 urte bitarteko gizon eta emakumeak. 2015-2019	10
13.grafikoa.	Etxebizitza babestua eskuratzeko eskarien bilakaera, sexuaren arabera. 2016-IV. H – 2019-IV. H*.....	11
14.grafikoa.	Etxebiden inskribatutako eskariaren hazkundeari egindako ekarpena, sexuaren arabera. 2016-IV. H – 2019-IV.H*	11
15.grafikoa.	Eskariak egiten dituzten emakume titularren vs gizon titularren pisu erlatiboa, 2016an eta 2019an egindako eskaeren guztizkoarekin alderatuta*	12
16.grafikoa.	Etxebiden egindako etxebizitza babestuaren eskarien urteko batez besteko hazkunde-tasa, sexuaren arabera. 2016-2019*	12
17.grafikoa.	Etxebiden egindako etxebizitza babestuaren eskariaren hazkunde-tasak 2019ko abendutik 2020ko abendura, sexuaren arabera.	13
18.grafikoa.	Etxebideko eskariak, sexuaren arabera, 2020ko abenduaren 31n	13
19.grafikoa.	Etxebizitza babestuen bisak 2019an eta 2020an, etxebizitza eskuratzeko erregimenaren eta esleipendunen sexuaren arabera.....	14
20.grafikoa.	Gizonen eta emakumeen pisu erlatiboa etxebizitza babestua eskuratzeko bisetan, jabetza-erregimenaren arabera. 2019-2020.....	15
21.grafikoa.	Emakume onuradunak, lurralde historikoaren eta erantzuteko moduaren arabera. Guztizkoarekiko ehunekoa	16
22.grafikoa.	Etxebizitzarako eskubide subjektiboaren ezarpena. 2016ko abendua - 2020ko abendua	17
23.grafikoa.	Euskadin etxebizitzarako prestazio osagarria (EPO) jasotzen duten pertsonak, 2020ko abenduan	18
24.grafikoa.	Etxebizitzarako prestazio osagarriaren onuradun izan diren emakumeen eta gizonen kopuruak izan duen bilakaera, 2020ko martxotik 2020ko abendura.....	18
25.grafikoa.	Gaztelagun programaren bidez emandako laguntzen bilakaera. 2019-2020	19
26.grafikoa.	Gaztelagun programaren onuradunen banaketa, sexuaren arabera. 2019 eta 2020	19


1. Emakumea Euskadin 2020an: adierazle sozioekonomiko nagusiak

Dinamika demografikoek berretsi egiten dute biztanleria zahartzen ari dela eta jaiotze-tasa oso txikia dela.

2020an, Euskadin 1.132.495 emakume zenbatu dira guztira, hau da, EAEko biztanleriaren % 51,5. Eustatek argitaratzen dituen estatistika demografikoek nabarmendu dute, XXI. mende honetan, emakumeen kopuruak hazkunde demografiko txikia izan duela Euskadin.

2020an, 2000. urtean baino 61.000 emakume gehiago erregistratu dira guztira Euskadin. Horrela, bada, bi hamarkada hauetan igotza txiki bat (+% 6) izan da; bestalde, gizonen kopurua eritmo zertxobait txikiagoan hazi da, eta XXI. mende honen hasieran baino 41.000 gehiago zenbatu dira.


1. grafikoa. Biztanle-kopuruaren bilakaera, sexuaren arabera. Euskadi, 2000-2020



Iturria: Eustat

Bizi-itxaropenaren igoerak eta migrazio-prozesuek eragin dute bilakaera positibo hori. Jaiotza-tasa, berriz, oso txikia da Euskadin. Hala, 2019an, 7 jaiotza erregistratu ziren 1.000 biztanle bakoitzeko, Estatuan baino sei hamarren gutxiago eta EBko batez bestekoa baino 2,3 gutxiago.


2. grafikoa. Jaiotze-tasaren bilakaera 1.000 biztanleko. Euskadi, 1974-2019. Estatuko eta Europako datuak. 2019



Iturria: EUSTAT (EAEko jaiotzen estatistika), EIN eta EUROSTAT

COVID-19aren inpaktura arte, Euskadiko bizi-itxaropena Europako handienetakoa zen, batez ere euskal emakumeen artean (86,8 urte, gizonen bizi-itxaropena baino 5,8 urte handiagoa, gizonen artean 81 urtekoa baitzen).


3. grafikoa. Bizi-itxaropenaren bilakaera (urteak) jaiotzean, sexuaren arabera. Euskadi, 2005-2019



Iturria: EIN. Oinarrizko Adierazle Demografikoak

Adin nagusiko biztanleria nabarmen hazten ari da, eta gazteek, berriz, gero eta pisu txikiagoa dute. 20 urtetik beherako emakumeek biztanleriaren % 17,3 osatzen dute, eta EAEko lau emakumetik batek 65 urte baino gehiago ditu.

4. grafikoa. Emakumeak adin-tarteen arabera, 2019 (pisu erlatiboa)



Iturria: EUSTAT


2019ra arte, emakumeen langabezia-tasak nabarmen egin zuen behera Euskadiko susperraldi ekonomikoan. 2008ko atzeraldiaren ondoren, langabezia-tasa nabarmen hazi zen lan egiteko adinean zeuden emakumeen eta gizonen artean.

Emakumeen langabezia-tasa lau aldiz handitu zen atzeraldi handian, eta % 10,6ra jaitsi zen 2019ra arte, susperraldi ekonomikoan.

Lan-merkatuaren egoerak okerrera egin eta etxebizitza librearen eta babestuaren sustapena geldiarazi izanaren ondorioz, emantzipatzeko beharra duten biztanleek gero eta zailtasun handiagoak izan dituzte etxebizitza eskuratzeko orduan, baita alokairua eta hipotekak ordaintzeko orduan ere, azken urteetan etxebizitza bat eskuratu duten familien kasuan.

Hala ere, 2015etik aurrera, Euskadiko ekonomia suspertu izanak langabezia-tasa ehuneko 5,6 puntu hobetzea ahalbidetu zuen emakumeen eta gizonen artean. Emakumeen langabezia-tasa 2014ko % 15,9tik 2019ko % 10,6ra jaitsi zen, gizonena baino 1,6 puntu handiagoa izanik. Jarraian zehazten den moduan, 2020an handitu egin da langabezia-tasa, batik bat gizonen artean.

5. grafikoa. Euskadiko biztanleria aktiboaren langabezia-tasaren bilakaera, sexuaren arabera. 2001-2020




Iturria: Biztanleria jardueraren arabera (BJA). Eustat

COVID-19aren krisiaren eraginez, emakumeen langabezia-tasak gora egin du zertxobait; bestalde, gizonen artean askoz ere handiagoa izan da inpaktuak.

2020an, langabezia-tasa hamarren bat bakarrik hazi da EAEko emakumeen artean, eta 1,3 puntu gizonen artean. Eustaten BJAk emandako informazioak ez ditu biztanle langabeen artean sartzen ABEEEn dauden pertsonak. Gainera, emakumeen enpleguak pisu handiagoa du jarduera soziosanitarioko adarretan, eta hori izan da 2020an enplegu gehiago izan duen sektore bakarra; beraz, emakumeen langabeziaren gorakada txikiagoa izan da gizonen artean hauteman denarekin alderatuta.

Horrela, Eusko Jaurlaritzako Lan Zuzendaritzak emandako datuen arabera (partzialak dira oraindik), ABEEEn inpaktuak eragin zertxobait txikiagoa izan du emakumeen artean. 2020ko apirilean izandako inpaktuaren une gorenean, 31.608 emakume zeuden ABEEEn eraginpean, eta gizonen kasuan, berriz, 40.011.


6. grafikoa. ABEEEn inpaktuak, sexuaren arabera, 2020ko apirilean



Iturria: Eusko Jaurlaritzako Lan Zuzendaritza

Edonola ere, gizonekin alderatuta langabezia-tasaren diferentziala murriztu egin bada ere, emakumeen jarduera-tasak gizonena baino ehuneko bederatzai puntu txikiagoa izaten jarraitzen du 2019an eta 2020an.

7. grafikoa. Euskadiko biztanleria aktiboaren jarduera-tasaren bilakaera, sexuaren arabera. 2001-2020




Iturria: EIN

Soldata-arrakalak ez du ia ezertxo ere egin hobera, eta bereziki handia da industrian.

Emakumeen ordainsari txikiagoetan negatiboki eragiten jarraitzen duten kultura- eta gizarte-faktoreez gain, soldata-arrakalaren azalpen objektiboenetako bat lanaldi partzialeko enpleguak emakumeen artean duen eragin handia da; izan ere, horrek emakume landunen % zori eragiten die, gizonen artean baino bost aldiz gehiago.

Soldata-arrakalaren azken datuak 2018. urtekoak dira, eta gizonen soldata handiagoa berresten dute sektore guztietan, bereziki industrian.

8. grafikoa. Gizonen eta emakumeen batez besteko soldata Euskadin, sektorearen arabera. 2008-2018



2. Lehen etxebizitza eskuratzeko premia euskal emakumeen artean


Eusko Jaurlaritzaren gaur egungo Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Sailak Etxebizitza Premiei eta Eskariari buruzko Inkesta argitaratzen du duela hainbat hamarkadatik. Estatistika ofizial horrek Euskadin bizi diren pertsonak lehen etxebizitza eskuratzeko dituzten premien bilakaeraren irudi xehakatu eskaintzen du. Azken datuak pandemia hasi aurreko hilabetei dagozkie, hau da, 2019ko azken hiruhilekoari.

Lehen etxebizitza eskuratzeko premia duten emakumeen kopurua oso gutxi murriztu da 2019an, eta aurreko hamarkadako bigarren erdialdekoen antzeko mailetan mantendu da.

Lehen etxebizitza eskuratzeko premia adierazi duten emakumeen kopurua zertxobait murriztu da: 2017an 29.506 emakumek adierazi zuten premia hori, eta 2019. urtearen amaieran, berriz, 29.226 emakumek. Murrizketa ia % 1ekoa da.

Aitzitik, lehen etxebizitza eskuratzeko premia adierazi duten gizonen kopurua nabarmen handitu da 2017tik 2019ra (% 8,8), eta 2019ko azken hiruhilekoan 35.447 izan ziren guztira. Azken hamar urteetan lehen etxebizitzaren eskaria ez da ia ezer murriztu emakumeen artean; gizonen artean, berriz, oso handia izan da beherakada 2017az geroztik.

9. grafikoa. Lehen etxebizitza eskuratzeko premia duten 18 eta 44 urte bitarteko emakumeen eta gizonen bilakaera konparatua. 2009-2019



Iturria: Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saila

10. grafikoa. Lehen etxebizitza eskuratzeko premia duten emakumeen eta gizonen kopuruaren aldakuntza-tasak. 2017-2019



Iturria: Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saila

2019an lehen etxebizitza eskuratzeko premia zuten emakumeek egoera ekonomiko txarra zuten gizonekin alderatuta.

Lehen etxebizitza eskuratzeko eskaria zenbatzen duten zifrak diru-sarreraren bat duten pertsoneri dagozkie. Kasu gehienetan, emakumeen nahiz gizonen artean diru-sarrera horiek ez dira nahikoak lehen etxebizitza eskuratzeko premiari aurre egiteko, baina egoera are kaltegarriagoa da emakumeen artean.

2019an, behar horri aurre egiteko diru-sarrera nahikoak ez zituztela adierazi zuten emakumeen ehunekoa nabarmen handiagoa zen; izan ere, diru-sarrerak zituzten eta lehen etxebizitza eskuratzeko premia zuten 29.226 emakumeetatik 20.000 baino zertxobait gehiago ziren, guztizkoaren % 68,6, eta kopuru hori % 56koa zen gizonen kasuan. Euskadin, lehen etxebizitza eskuratzeko benetako eskaera (diru-sarrera nahikoak dituzten emakumeak) 9.189 emakumek bakarrik osatzen dute, eta 14.791 gizonak. Horrek agerian uzten du emakumeek etxebizitza eskuratzeko egoera txarra bizi dutela.


11. grafikoa. 18 eta 44 urte bitarteko pertsonen lehen etxebizitza eskuratzeko eskaria, diru-sarreraren eta sexuaren arabera. 2019. Guztizko eskariarekiko ehunekoa, sexu bakoitzean



Iturria: Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saila

Azkenik, inolako diru-sarrerarik ez duten emakumeen kolektibo zabal bat dago, baina, lehen etxebizitza eskuratzeko premiari buruz galdetzean, premia hori badutela adierazten dute. Etxebizitza eskuratzeko premia duten eta inolako diru-sarrerarik ez duten emakumeen kolektibo horrek gora egin zuen 2017tik 2019ra (% 25,2), eta 2019an, 12.808 emakume zenbatu ziren egoera horretan. Gizonen artean, kolektibo horren kopurua zertxobait handiagoa da, baina 2017 eta 2019 bitarteko hazkunde-tasa oso antzekoa izan zen (+% 25,6).

12. grafikoa. Lehen etxebizitza eskuratzeko premia adierazi duten inolako diru-sarrerarik gabeko 18 eta 44 urte bitarteko gizon eta emakumeak. 2015-2019



Iturria: Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saila


3. Etxebizitza babestua

3.1. Etxebizitza babestuaren eskaria euskal emakumeen artean

COVID-19ak eragin aurretik, Etxebideko eskarietan titularrak ziren emakumeen kopuruak oso nabarmen egin zuen gora, bereziki alokairuaren kasuan (+% 47).

Etxebideko eskaeren titular gisa inskribatutako emakumeek egindako alokairu babestuaren eskaria asko hazi zen euskal ekonomiaren susperraldian (2016tik 2019ra). Hazkunde hori handiagoa izan da erosteko erregimenean (+% 54) alokairu-erregimenean baino (+% 30). Joera hori antzekoa izan da gizonen etxebizitza babestuaren eskarian.


13. grafikoa. Etxebizitza babestua eskuratzeko eskarien bilakaera, sexuaren arabera. 2016-IV. H – 2019-IV. H*



* Titularra emakume edo gizon bat bakarrik denean
Iturria: Etxebide

2016ko laugarren hiruhilekotik 2019kora, Etxebiden eskarien titular gisa inskribatuta zeuden emakumeek 2016-2019 aldiko hazkunde osoaren % 45 osatu dute, gizonak egindako ekarpenaren gainetik (% 34). Etxebideko eskaerak egin dituzten emakume titularren gero eta pisu handiago hori alokairu-erregimenean pilatzen da. Gogoratu behar da eskariaren zati handi bat alokairu-erregimenean dagoeneko emantzipatuta dauden familia-unitateei dagokiela.

14. grafikoa. Etxebiden inskribatutako eskariaren hazkundera egindako ekarpena, sexuaren arabera. 2016-IV. H – 2019-IV. H*




* Eskarien titularra emakume edo gizon bat bakarrik denean
Iturria: Etxebide

Etxebiden inskribatutako eskariak gero eta profil feminizatuagoa zuen alokairu-erregimenean.

2019ko azken hiruhilekoan, emakumeek titular gisa egindako alokairu-eskariak eskera guztien % 43,3 izan ziren, gizonenak argi eta garbi gaituz (% 34,4). Erosketa-eskariaren kasuan, emakumeek titular gisa egindako eskarien pisua (% 39,4) gizonen egindakoaren oso antzekoa zen (% 39,9). Inskribatutako gainerako eskaria emakume bat eta gizon bat titular gisa agertzen ziren eskaerei dagokie.


15. grafikoa. Eskariak egiten dituzten emakume titularren vs gizon titularren pisu erlatiboa, 2016an eta 2019an egindako eskaeren guztizkoarekin alderatuta*



* Eskarien titularra emakume bat edo gizon bat bakarrik denean. Gainerako eskaeretan bi generoak dira titularrak.
Iturria: Etxebide

2016tik 2019ra, Etxebiden inskribatuta zeuden etxebizitza babestuko emakume titularren eskariak batez beste % 18,3ko erritmoan egin zuten gora erosketaren kasuan, eta % 10,1eko erritmoan alokairuaren kasuan. Batez besteko hazkunde-tasa horiek titularrak gizonak diren eskarietan ikusitakoak baino zertxobait handiagoak dira.

16. grafikoa. Etxebiden egindako etxebizitza babestuko eskarien urteko batez besteko hazkunde-tasa, sexuaren arabera. 2016-2019*




* Titular gisa emakume bat bakarrik agertzen den eskariak vs titularra gizon bat den eskariak.
Iturria: Etxebide

2020ko abenduan eskura dagoen azken informazioaren azterketak nabarmentzen duenez, ez da funtsezko aldaketarik gertatu etxebizitza babestuaren eskariaren goranzko joeran eta erritmoan.

2020an, Etxebiden inskribatuta zeuden emakume titularren etxebizitza babestuaren eskariaren hazkunde-tasa %17,9koa izan zen erosketaren kasuan, eta %9,1ekoa alokairuaren kasuan. Horrenbestez, erritmoa 2016-2019 hirurtekoan izandakoaren antzekoa da. Era berean, 2020an ere alde txiki bat mantendu da gizonen eskarian hautemandako eskariaren hazkunde-tasei dagokienez, erosteko nahiz alokatzeko orduan.

17. grafikoa. Etxebiden egindako etxebizitza babestuaren eskariaren hazkunde-tasak 2019ko abendutik 2020ko abendura, sexuaren arabera




Iturria: Etxebide

2020ko abenduaren 31n, Etxebiden emakume titularrek egindako 33.052 eskaera zenbatu ziren (eskari guztien % 43,1); emakume titularrek egindako eskarien pisu hori zertxobait handiagoa da alokairuaren kasuan (% 43,9), erosketaren kasuan baino (% 40,5).

Eskari horrek 5.700 eskaritan baino gehiagotan gaintitzen du gizonei dagokiena (guztizkoaren % 35,5); bestalde, eskaera guztien % 21,3 titularrak gizon eta emakumeak diren espedienteei dagozkie.

18. grafikoa. Etxebideko eskariak, sexuaren arabera, 2020ko abenduaren 31n




Iturria: Etxebide

3.2. Etxebizitza babesturako sarbidea euskal emakumeen artean

COVID-19aren krisiak eragindako inpaktuak ez du modu esanguratsuan murriztu etxebizitza babesturako sarbidea euskal emakumeen artean.

Etxebizitza babestuak alokatzeko eta erosteko kontratuen bisei buruzko azken datuen arabera, **2020an, babestutako etxebizitza eskuratzearekin lotutako emaitzak negatiboak izan dira**, COVID-19aren testuinguruaren zailtasun handia dela eta. 2019arekin alderatuta, 2020an % 8 jaitsi da Euskadin etxebizitza babestu bat eskuratu duten emakumeen kopurua; gizonen kasuan, berriz, murrizketa-tasa ehuneko 5,6 puntu handiagoa izan da.

19. grafikoa. Etxebizitza babestuen bisak 2019an eta 2020an, etxebizitza eskuratzeko erregimenaren eta esleipendunen sexuaren arabera



Iturria: Datu estimatuak, Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Sailak emandako informazioa oinarritzat hartuta

Nahiko positiboak diren edo aurreikusi bezain negatiboak ez diren emaitza horiek sarbide-erregimenaren arabera zehaztu behar dira.


Erosketa-erregimeneko etxebizitza babestuen kasuan, guztira 1.493 emakume zeuden 2020an bisatutako kontratuetan, hau da, 2019an baino % 11,6 gehiago; emaitza hori gizonen artean hautemandakoa (-% 0,6) baino hobea da.

2020an, ordea, alokairu-erregimenean eskuratutako etxebizitza babestuen kopurua 2019an baino txikiagoa izan da, babestutako etxebizitza eskuratu duten emakumeen kopurua % 27 jaitsi baita 2019. urtearekin alderatuta. Nolanahi ere, bilakaera hori ez da gizonen artean hautemandakoa bezain negatiboa, horien artean % 32ko beherakada izan baita 2019ko datuekin alderatuta.

Etxebizitza babestua eskuratzearekin lotutako emakumeen pisu erlatiboa gizonena baino hobea izan da 2020an.

2020an, emakumeek etxebizitza babestua eskuratu dituzte batik bat: alokairu-erregimeneko kontratuetan agertzen diren pertsona guztien % 58,9 dira, eta erosketa-kontratuetan ageri direnen % 51,1.

20. grafikoa. Gizonen eta emakumeen pisu erlatiboa etxebizitza babestua eskuratzeko bisetan, jabetza-erregimenaren arabera. 2019-2020



Iturria: Datu estimatuak, Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Sailak emandako informazioa oinarritzat hartuta

4. Etxebizitzarako eskubide subjektiboa eta etxebizitza ordaintzeko prestazioen sistema

4.1. Etxebizitzarako eskubide subjektiboa euskal emakumeen artean

Duela lau urtetik baino gehiagotik, Euskadiko etxebizitzari buruzko araudiak etxebizitzarako eskubide subjektiboa aitortzen du, Etxebizitzaren ekainaren 18ko 3/2015 Legearen bidez. 2020. urtearen amaieran, Euskadin 6.136 pertsonak zuten aitortuta etxebizitzarako eskubide subjektiboa (EES), horietatik 3.800 emakumeak, hau da, guztizkoaren % 61,9.

2019. urtearekin alderatuta, EESA aitortuta duten emakumeen kopurua % 23 hazi da. Etxebizitzarako eskubide subjektiboaren aitortpena dela eta:

- 588 emakumek etxebizitzarako eskubide subjektiboa jaso dute dagoeneko (2019an prestazio horren onuradun izan zirenen % 64,8).
- 667 emakumeri sustapen publikoko etxebizitza bat esleitu zaie, hau da, eskubide horrekin lotutako esleipendunen % 56,8ri.


Etxebizitzarako eskubide subjektiboa onartu zaien gainerako emakumeek lehentasuna izango dute etxebizitza babestuen hurrengo esleipenetan.

1. taula. Etxebizitzarako eskubide subjektiboaren emakume onuradunak, 2020ko abenduan

Lurraldea	Esleitzeko lehentasuna	Etxebizitzarako prestazio ekonomikoa (EPE)	Etxebizitzaren esleipena	Etxebizitzarako eskubide subjektiboa, guztira
Araba	344	28	163	535
Bizkaia	1.966	493	318	2.777
Gipuzkoa	235	67	186	488
Guztira	2.545	588	667	3.800

Iturria: Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saila


21. grafikoa. Emakume onuradunak, lurralde historikoaren eta erantzuteko moduaren arabera. Guztizkoarekiko ehunekoa



Iturria: Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saila

2016tik, etxebizitzarako eskubide subjektiboaren aitortpenarekin batera, Euskadin oso hazkunde esanguratsua hauteman da eskubide horren onuradun izan diren emakumeen artean, etxebizitza babestua eskuratzeko orduan nahiz EPE bat jasotzeko orduan.

22. grafikoa. Etxebizitzarako eskubide subjektiboaren ezarpena. 2016ko abendua - 2020ko abendua




Iturria: Eusko Jaurlaritzako Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saila

4.2. Etxebizitzarako prestazio osagarria euskal emakumeen artean

Etxebizitzarako prestazio osagarria da, oraindik ere, estaldura gehien ematen duen etxebizitza-arloko laguntza. Dakigun moduan, prestazio hori diru-sarrerak bermatzeko errentarekiko (DSBE) osagarria da alokairu librean bizi diren pertsonentzat eta familientzat.


23. grafikoa. Euskadin etxebizitzarako prestazio osagarria (EPO) jasotzen zuten pertsonak, 2020ko abenduan



Iturria: Lanbide

2020ko abenduan, guztira 14.118 emakumek jasotzen zuten prestazio hori, hau da, onuradun guztien % 54,6k. COVID-19aren krisiak eragindako inpaktua nahiko txikia izan da EPOa jasotzen duen emakumekopuruaren hazkunderan. 2020ko martxotik 2020ko abendura % 6,6 igo da, eta guztira 879 onuradun gehiago zenbatu dira bederatzi hilabete hauetan.

24. grafikoa. Etxebizitzarako prestazio osagarriaren onuradun izan diren emakumeen eta gizonen kopuruak izan duen bilakaera, 2020ko martxotik 2020ko abendura




Iturria: Lanbide

4.3. Gaztelagun programak euskal gazteen artean izan duen irismena

2019an martxan jarritako Gaztelagun programak (euskal gazteei alokairua ordaintzen laguntzeko programa) gorakada nabarmena izan du bere estalduran, COVID-19aren krisiak eragindako testuinguruan. Horrela, bada, 2020an 1.800 laguntza eman dira guztira, hau da, 2019an baino % 151 gehiago.


25. grafikoa. Gaztelagun programaren bidez emandako laguntzen bilakaera. 2019-2020



Iturria: Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saila

EAEko neska gazteak izan dira laguntza horien onuradun nagusiak, 2019an nahiz 2020an. Izan ere, laguntza horien hiru onuradunetik bi izan dira 2019an eta 2020an, % 68 2019an eta % 64 2020an.

26. grafikoa. Gaztelagun programaren onuradunen banaketa, sexuaren arabera. 2019 eta 2020



Iturria: Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saila

5. Ondorioak

Etxebizitzaren Euskal Behatokiak txosten xehatu bat egiten du urtero, eta, txosten horretan, euskal emakumeek etxebizitzari dagokionez bizi duten egoeraren diagnostikoa eta bilakaera islatzen dira. Txosten horrek erantzuna ematen dio Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza Sailburuordetzak etxebizitza babestua eskuratzeko orduan ekitatea eta berdintasuna bermatzen dituzten berdintasun-politikekiko duen konpromisoari, baita programa eta prestazio publikoei ere.

2005etik, Euskadin Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legea da funtsezko arau-erreferentzia; bertan, Eusko Jaurlaritzaren etxebizitza-politiken diseinua egituratzen da, diskriminazioa saihesteko arau-printzipioak betetzen direla bermatuz.

Etxebizitza Sailburuordetzak diseinatzen eta aplikatzen dituen sistemak eta prozedurek etxebizitza babestua eskuratzeko ekitatea bermatzen dute, baita etxebizitzarako eskubide subjektiboa ere. Prozedura horiek etxebizitzak eskuratzeko lehentasunezko sistemak planteatzen dituzte muturreko egoerarako (genero-indarkeriaren biktimek, adibidez, etxebizitza babestua lehentasunez eskuratu ahal izan dezaten), baita beste mekanismo orokor batzuk ere, inplizituki emakumeei on egiten dietenak. Mekanismo horien artean dugu, besteak beste, etxebizitza babestua alokairuan eskuratzeko baremazioa. Baremazio horri esker, diru-sarrerara gutxien dituzten pertsonak eta familia-unitateak ere eskura dezakete etxebizitza, eta beraz, baita oraindik ere soldata-arrakalaren ondorioak jasaten dituzten emakumeek ere.

Horrez gain, Euskadiko etxebizitza-politikak, haren alderdi sozialenean, lan-merkatuak emakumeengan sortzen dituen inpaktu negatiboak eta desorekak arintzea du helburu. Zentzu horretan, Eusko Jaurlaritzak apustu sendoa egin du alokairu-politiken alde, etxebizitza erostea sustatzen duten politiken kaltetan, eta politika horri esker, euskal emakumeentzat errazagoa da etxebizitza bat eskuratzea; izan ere, Etxebideko eskari gehien emakumeenak dira.

Emakumeek oraindik ere lan-karga handiagoa bereganatzen dute etxean eta mendeko pertsonen zaintzan, eta hori argi eta garbi islatzen da jarduera-tasa nabarmen txikiagoan, lanaldi partzialeko lanaren intzidentzia handiagoan eta lan-baldintza kaltegarrietan. Gainera, soldata-arrakala oraindik ere nabarmena dela azpimarratu behar da. 2019ra arte, Euskadiko ekonomia suspertzeko prozesuak nabarmen murriztu du emakumeen langabezia-tasa (% 10,6ra arte), baina, hala eta guztiz ere, soldata-arrakala oraindik ere oso handia da euskal ekonomiako jarduera-sektore guztietan, bereziki industrian.

COVID-19aren krisiak izan duen eraginari buruz eskura dauden lehen datuek nabarmentzen dutenez, emakumeen jarduera-tasa % 52,2tik (2019an) % 51,1era (2020an) murriztu da; era berean, langabezia ehuneko hamarren bat handitu da (% 10,7ra), gizonen langabezia-tasa nabarmen igo arren (% 9koa zen 2019an, eta % 10,3koa 2020an).

ABEEE-en estaldura zabalari esker, krisiaren eragina nahiko txikia izan da oraindik ere, eta 2020. urtearen erdialdera aldera, 31.000 emakume landun zenbatu ziren enplegu-erregulazioko espediente horietan (horri esker, beren lanpostuak mantendu ahal izan dituzte). Pandemiaren bilakaera bera eta ABEEEak amaitzean euskal enpresetan izango duen inpaktua erabakigarriak izango dira krisiak enpleguan izango duen inpaktuaren azken balantzea egiteko orduan.

Etxebizitzaren premiei eta eskariari dagokienez, 2019ko azken hiruhilekoan, hau da, pandemia gertatu baino hilabete gutxi batzuk lehenago, Etxebizitza Premiei eta Eskariari buruzko Inkestak erregistratu zenez, lehen etxebizitza eskuratzeko premia adierazi zuten emakumeen kopurua %1 bakarrik murriztu zen 2017. urtearekin alderatuta, eta guztira 29.506 emakumek adierazi zuten premia hori. 2017. urtearekin alderatuta, eskaria % 8,8 hazi zen gizonen artean, eta 2019. urtearen amaieran, guztira 35.447 gizonek adierazi zuten lehen etxebizitza eskuratzeko premia.

Edonola ere, epe ertainera begira, ikus daiteke lehen etxebizitza eskuratzeko eskariak gero eta pisu handiagoa duela emakumeen artean; horrela, 2019tik, premia hori duten emakumeen kopurua aldaketarik gabe mantendu da (30.000 emakume inguru), eta lehen etxebizitza eskuratzeko premia, berriz, nabarmen murriztu da gizonen artean (2015ean 41.000 eskatzaile baino gehiago zeuden).

Horrez gain, txosten honen edizio guztietan nabarmentzen den ezaugarri nagusietako bat honako hau da: lehen etxebizitza eskuratzeko eskaria osatzen duten emakumeen ahultasun ekonomiko handia. Lehen etxebizitza eskuratzeko premia adierazi duten emakumeen % 31,8k bakarrik (eta gizonen % 42k) ditu etxebizitza eskuratzeko nahikoa diru-sarrera; beraz, 18 eta 44 urte bitarteko 9.189 emakumek osatuko lukete beren lehen etxebizitza eskuratzeko benetako eskaria. Emakume horien emantzipazio-prozesuetan laguntzeko erronkak funtsezkoa izaten jarraitzen du, oraindik ere, Euskadiko etxebizitza-politikan; izan ere, merkatu libreak ezin izango die modu egokian erantzun haien premiei, eta COVID-19aren krisiaren eraginak areagotu egingo du seguruenik.

Etxebiden inskribatutako etxebizitza babestuaren eskariak zailtasun ekonomikoko egoera hori berresten du, baita etxebizitza bat arrazoizko prezioan eskuratzeko premia ere. Ekonomia suspertzeko prozesuak nabarmen areagotu zuen etxebizitza babestuaren eskaria. Pandemia hasi aurretik, 2019ko abenduan, Euskadin guztira 24.031 emakumek zuten alokairuko etxebizitza babesturako eskaeraren bat, 2016an baino % 30 gehiagok; bestalde, 5.795 emakumek etxebizitza erosteko eskaria egin zuten, 2016ko erregistroetan baino % 54,8 gehiagok.

2020an, COVID-19aren inpaktuak oraindik ez dio modu esanguratsuan eragin Etxebiden inskribatutako etxebizitza babestuaren eskariari. Horrela, 2020an % 8,1 hazi da alokairuaren eskaria, eta % 17,4 erosteko eskaria. Tasa horiek 2016-2019 aldiko batez besteko hazkunde-tasen azpitik daude.

Euskadiko etxebizitza-politika etxebizitza eskuragarri bat lortzeko aukera jorratzen ari da hiru jarduketa-ildotan oinarrituz, pandemiak sortu duen testuinguru konplexu honetan: etxebizitza babestuaren esleipena, etxebizitzarako eskubide subjektiboaren onarpenean egindako aurrerapena eta prestazioen sistemak eskaintzen duen estaldura zabala. Hiru kasuetan, arestian aztertutako egoera sozioekonomiko zaurgarriagoa egiaztatzen duten emakumeen premiei erantzuteko joera positiboa berresten da.

2020an, titularra emakumea zen etxebizitza babestuetako kontratuen 2.446 bisa erregistratu dira, 2019ko kopuruaren oso antzekoa (2.660 bisa). Datu hori positibotzat jo dezakegu, gertatu den salbuespenezko egoera dela eta. Edozein kasutan, jokabidea oso bestelakoa da jabetza-erregimenaren arabera. 2020an, salerosketa-bisen kopurua % 11,6 hazi da, eta alokairuena, berriz, % 27,9 murriztu da.

Era berean, etxebizitzarako eskubide subjektiboaren onarpenak nabarmen aurrera egiten jarraitu du urte zail honetan. Horrela, bada, 3.800 emakumeri eman die estaldura, onuradun guztien % 61,9ri; horietatik 588 emakumek etxebizitzarako prestazio ekonomikoa kobratzen dute, eta 667 emakumeri sustapen publikoko etxebizitza bat esleitu zaie.

Azkenik, gizarte-prestazioen esparruan nabarmenagoa da pandemiaren eragina. 2020an, DSBEarekin lotutako etxebizitza-gastuetarako prestazio osagarriaren estaldura % 6,6 hazi da emakumeentzat (gizonen artean hautemandako % 5,5a baino zertxobait gehiago); horrela, 2020ko abenduan, 14.116 emakumek jaso zuten prestazio hori, hau da, onuradunen % 54k.

Gainera, Gaztelagun programa martxan jartzeak are gehiago sendotu du emakume gazteek alokairuko etxebizitza eskuratzeko prestazio-sistema hori: 2020. urtearen amaieran 1.550 emakume onuradun baino gehiago zeuden, hau da, hiru onuradunetatik bi inguru.